

STEE-EILAS homologazioaren kontra?

- STEE-EILAS homologazioaren kontra? • Pribatuko grebaren 20. urteurrena
- AZPkoen txokoa • Agenda Soziala • K.E. eta A.I.C.E.: sinatutako bete
- Diru gehiago ≠ homologazio • Boletinak

aurkibidea

Irakaskuntza Pribatua

STEE-EILAS homologazioaren kontra?	2
Pribatuko grebaren 20. urteurrena	3
Agenda Soziala	4
AZPkoen txokoa	4
K.E. eta A.I.C.E.: sinatutakoa bete!	5
Diru gehiago ≠ homologazio	5
Boletinak	6

STEE-EILAS HOMOLOGAZIOAREN KONTRA?

Itunpeko irakaskuntzan, **STEE-EILAS**eko delegatu eta afiliatuentzat ez dira izan aste errazak. Joan den maiatzaren 20ko homologazioaren aldeko deialdi sindikalaren aurrean, jarrera kritikoa azaldu dugunon izena zikintzeko Kanpaina handia sortu da. Gure sindikaturantz, Ikastetxeen zuzendaritzen aldetik, kritikak egon dira, gure lankideek eskubideak ez ditugula defendatzen esanez; askoren aldetik ulertezintasuna; eta batez ere, beste sindikatuen aldetik asmo txarreko komentarioak. Ñabardurarik ez dago: edo beraiekin edo beraien kontra.

STEE-EILASek ez du ezer ezkutatzeko. Beti egon gara langileen homologazioaren alde (erreklamatu genuen lehenak izan ginen) eta, esparru guztietan eta langile guztientzat defendatzen jarraituko dugu. Eta hori da joan den maiatzaren 27an berriz egin genuena, Eusko Legebiltzarraren aurrean, kontzentrazio batean.

Bertako talde guztiek, gure eskutik, homologazioaren eskaera jaso zuten. Entzun zituzten proposamenak oso zehatzak izan ziren: irakasle ez direnen lansarien berdintzea, DBH1 eta DBH2en homologazioa, tutoretzagatik lanaldien murrizketa, bigarren hezkuntzan ordu beteko murrizketa... Proposamen hauek homologazioaren kontra daude? Ez dira lan eskaerak?

Interesatuak diren kritikei maskara kendu behar zaie eta denak maskararik gabe azaldu daitezzen exijitu behar dira. Eskatzen dutena homologazioa baino urrutiago joaten dela ezin dute ezkutatu. Marko berriak hezkuntza sistema eredu konkretu bat indartu nahi du eta horrekin, **STEE-EILAS** ez dago batere ados. Baina, gainera, alde aurreko eztabaidarik gabe, azpitik sartu nahi digute. Homologazio laborala tresna gisa erabiltzen dute beraien bidezko errebindikazioak lortzeko, eta harrigarriena, iskanbila honetan Indar sindikal batzuk azaltzen diren arduragabekeria eta gutxiegiako joera kritikoa da.

Hala ere, **STEE-EILAS**, hau, aurreratzeko une historikoa delakoan dago. Hau da aukera. Ikastetxeen eszeptizismo eta geldotasuna gainditzeko hartu duten bidea ez da egokiena. Batasun Sindikal maila altuagoa berrartzeko puntu komunak bilatzea funtsezkoa da, inoren jabegotan erori gabe. **STEE-EILAS** sindikatua horretarako prest dago, baldin eta homologazioaren errebindikazioak ez badio beste gauza bati estaldurarik ematen. Eztabaidak desberdinu behar dira eta, homologazioarenean bere ondoan gaituzte. Bestean, finantzazioarenean, gauzak nola datozen arabera ikusiko dugu. Eskuak igurzten ari diren patronalei ez diegu zuritako txekoa emango. Egoera honen ondorio maltzurrenetako bat, hitzarmenaren negoziatioaren egoera da. Geldirik jarraituko du eta, ondorioz, hurrengo ikasturterako ez da hobekuntzarik egongo. Gainera, Kristau Eskolak eta AICEk, gehiengo sindikalaren nagikeriaren aurrean, iaz urtean hitzarmenean sinatutakoa bete gabe jarraituko dute.

Zer dela eta, sindikatu on eta gaiztoen bereizketa hainbat zuzendarientzat?

Gure gaiak dira

Pribatuko grebaren 20. urteurrena (1988)

Bi eguneko kontua izango zelakoan geunden baina bi hilabete iraun zituen. Patronala larderiartzaile eta setatia izaten da eta agoantatzeko baliabideak ditu. Nahiz eta gure zalantzak eta beldurrak eduki hasieran, Patronalaren jarrera guztiz itxia ikusiz, hau izan zen, batez ere, erabaki eta bide zuzena hartu genuela konbentzitu gintuena, eta, batasunaren bidez, gure errebindikapenak aurrera ateratzea lortuko genuela ere bai.

Duela 20 urte hau guztia gertatu zen. Berrogei eta hamar urtetik inguru ditugunok, eta apurka apurka gure lan bizitzaren azken garaian sartzen ari gara, une haietan gauzak gazteok ginen eta gauzak aldatu nahian genbiltzan, eta era berezian, gure eskubideak eta lan baldintzak duintzeko helburua genuen. Utopia gurea egiten genuen. Utopia honek bultzatu zuen gure batasuna, elkarrizketa, baita jarrera ezberdinen arteko adostasuna ere. Azken finean, arrakastara eraman gintuen. Inolako zalantzarik gabe, arrakastatzat jo behar dugu Euskadiko lehen Hitzarmena lortu izana.

Partaidetza oso altua izan zen. Berari esker greba luze hau mantentzea lortu genuen. Garai hartan gaur egun bezala, ohiko arazoak genituen (soldata bakarreko familiak,, etxebizitzaren hipoteka, seme-alaba txikiak etab.). Baina, hala eta guztiz ere, jarraitu genuen.

Egia esanez, gogorra zen, oso gogorra. Baina, baita oso handia ere. Etengabeko manifestaldiak, ordu luzeak berrien zain, estrategiak... Nolanahi ere, gure motibazioak bultzatzen gintuen sortzaileak izatera gure ekintzetan: kale betean klasea emanez; Bilboko Gran Vía n tenis partiduak jolastu genituen, non jokalaria Patronala eta Administrazioak ziren, eta gu, langileok, alde batetik bestera zihoan pilota...

Lehen aldikoz, hedabideek, zeintzuek ordura arte Patronalaren berriak bakarrik argitaratzen baitzituzten, gure errebindikapen berri ematen hasi ziren. Klaserik gabeko ikasle asko zegoen eta. Albiste interesgarrien eragile bilakatu ginen.

Baina, hau guztia oso garrantzitsua bada ere, are aipagarriagoak dira asanblada handiak, langilez gainezka, non guztiok adierazten genituen gure ideiak eta, ilusio handiz, hartzen genuen ondoko lagunak esaten ziguna.

Batasun sindikala. Sindikatu guztiok parte hartu genuen. (Guk, **STEE-EILAS**, garai hartan, CC.OO. eta independenteekin UTEPE koalizioa sortzen genuen). Batasun sindikal honek konfiantza eman zigun. Eta beldurra

jan egin genuen. Zalantzarik gabe, hau gure bizitzaren garai eder eta ahaztezinakoa izan da.

Egia da greba hartan parte hartu genuenok, gure soldatetan ondorioak sumatu genituela. Baina, horrez gain, eta hau da garrantzitsua, elkartasun bidea borroka hartan bizi izan genuen, eta horrek ez du preziorik. Duintasunak preziorik ez duelako. Bidea zabaldu genuen gaur egungo guztion lan baldintzak, Irakaskuntza Pribatua lan egiten dugunok, duinagoak izan zitezten. Lehen Euskadiko Hitzarmena lortu egin genuen. Honen bidez, Irakaskuntza Pribatuko langileen lan baldintzak hobetzeko Hezkuntza mailan Eusko Jaurlaritzak dituen lehiaketak era zuzenagoan kudeatzeko aukera eskuratu genuen. Eta gainera, Ordainketa Ordezkatua negoziatzen hasteko atea ireki zigun, zeina aurreagoan lortu egin genuen.

Baina, batez ere, langileak garelako dugun duintasuna eta, honen ondorioz, dagozkigun eskubideak onar zitezela lortu egin genuen; Sektoreko langile guztientzat; greba sustengatu barik euren lanpostuetan erosoki geratu zirenentzat, barne.

Gaur egun, baldintzak ezberdinak dira. Bizi dugun behin-behinekotasuna oztopo izugarria da gure ekintza sindikal eta gure errebindikapenak aurrera ateratzeko. Argi dago Patronala honetaz baliatzen dela gure aurka. Baina, hain zuzen ere, egoera hau sano zaila dela dakigulako, horregatik, jo ta ke gure lanean jarraitu behar dugu, koherentzia eta ardura osoz.

Ildo honetan, guztiz beharrezkoa da, gazteok, bizitzaren ari garen garaiaz kontzientzi har dezazuela, zuen ekarpena ezinbestekoa baita egoera hau aldatzeko.

Gure lana, etengabeko ahalegina eta batasuna historia aurrerazteko gauza dira. Ez dator ezer egina. Dena lortu egin behar dugu, lehen eta orain. Eta, gure kasuan, hau guztia aurrera eramateko, daukagun tresna bakarra afiliazioa eta partaidetza sindikala da. Partaidetza honen bidez beharreko sostengu eta aholkularitza aurki dezakegu arazoei aurre egiteko, eta aldi berean, bidezko konponbideak, beste lagunak lankidetzaz.

20 urte geroago, honetan guztian datza gure lana, baita datozenei guk utzi nahi geniekeena ere. Merezi duela uste dugulako. Hau da gure eskubidea eta hau da gure betebeharra.

AGENDA SOZIALA

Agenda soziala: G8 2008 (Japon)

Aurtengo G-8 taldea (Europar Batasunaren laguntzarekin) uztailaren 7-9 bitartean, hurrengo lelopean bilduko da: *"Osasun globala: munduaren etorkizuna, energia nuklearra, aldaketa klimatikoa eta Afrikaren garapena"*.

Mobilizatzeko nazioarteko deiari erantzunez, hainbat talderekin batera, zenbait jarduera antolatzen ari gara: maiatzaren 22-25 bitartean, hitzaldiak euskal lau hiriburuetan; www.g8akatu.org web orria; eta uztailaren 5erako manifestazioa.

Zergatik? G8 taldeak munduko populazioaren %14 (850 milioi pertsona) baino ez ordezkatu arren, bere erabakiek gainontzeko ia 6 mila milioi pertsonen bizitzan eragiten dutelako. Inolako oinarri juridikorik izan ez arren, munduaren nondik norakoak erabakitzeko eskubidea taktikoki bereganatzen duelako, Munduko Bankua, Munduko Moneta Fondoa edo Munduko Merkataritza Erakundea kontrolatzean. Aipatu erakundeok ordezkatzan dituzte politika neoliberal aurreratuenak dituzten herrialdeetako elite finantzieroak eta multinazionalak, zeinek egungo krisi ekonomikoaren ardura duten eta, etekin handiagoak lortzeko, lan baldintzak prekarioago bihurtu duten.

8 herrialde horiek munduko gastu militarren %60 ordezkatzan dute, munduko arma merkataritzaren %90 kontrolatzen dute, munduko CO² emisio guztien erdia eragiten dute; farmakoen patenteen %80 dute eta pobretutako herrialdeen zor ia osoa kontrolatzen dute. Nori sartu nahi diote ziria?

Orain arte, G8ren erabakiek pobrezia, zor, eta gerra gehiago ekarri dituzte. Orain, klima aldaketari eta Afrikako egoerari bilatu nahi dituzten irtenbideak energia nuklearra eta libre merkatua dira. Nolatan onartu eskuak gurutzatuta? Honen guztiagatik...


G8ren diktaduraren aurrera, demokrazia globala.
--

AZPkoen TXOKOA

Ikasturte Amaiera

★ Uda eta atsedenen beharra daukat. Atsedeen handiaren beharra. Ez naiz bakarra. Hau da pasillo guztietan entzuten dena, bakoitzak bere penarekin. Ikasturte amaiera datorrela sumatzen da eta honi dagozkien itomenak. Eta kontabilitatean zer esanik ez. Kontuak egin behar dira, irteerak prestatu (bere gastuekin), airean gelditzen diren guztia begiztatu. Ama laguntzaileak kurtso amaierako ditxosozko festak prestatzeko laguntza ematen ari dira, festa hauek gurasoen gustukoak eta irakasleentzat lan gehigarriak dira. Gainera, notak, azterketak, kontrolak, bidaiak... daude. Eta nekamena sentitzen da. Orokorreko ahuldura bezalakoa da. Ez dakit zergatik harritzen naizen, hain nekaturia eta bulegoan egoteko hain gogo gutxi izatea, urte guztiak berdina dira eta!. Eta bukatzeko, asteburu honetan etengabe euria izan du, eta gaur, astelehena, eguraldi zoragarria dugu. Eta 2008ko hitzarmenari buruz, batez. Edozein modutan animatu behar gara.

Maité A.R



berriak

Kristau Eskolak, AICE: Sinatutakoa bete!

Homologazioaren gaiak sektoreko ekintza sindikala gelditu du erabat. 20ko deiladiaren ondoren, ematen du guztiak dauidela oporretan.

STEE-EILASek haserrea somatu ikastetxeetan, gauza bat dela bestea dela, berriro ere galduko dugu urtebete zer edo zer lortzeko. Beharrezkoa al zen ikasturte amaierate itxarotea mobilizatzeko? Ezinbestekoa al da hitzarmeneko mahaia apurtzea horretarako?

Kezkatuta gaude patronalek iaz sinatutakoa ez dutela ko betetzen. Norbanakako eskaerak egin behar dira, bide judizialek askotan, automatikoak izan behar ziren kontuak eskuratzeko orduan: fijo izatera pasatzen denean behin-behineko kontratupean lan egindako denboraldien aintzinasuna aitortzea, jarraipeneko saria nahi dugunean kobratzeko, 58. bete ondoren lanaldi murrizketa izateko...

Bete ez diren gauzen artean STEE-EILAS sindikatuarentzat mingarriena da irakasleon asteko lanaldia 32 orduen arabera (ikastetxeetan ezartzen ari diren 34etatik hurrun) arautzearenadana. Konpromiso hori betetzeko epea 2007ko ekainaren 30ean amaitu zen eta, urtebete beranbduago *Kristau Eskolak* ez du bete. Non dago bere sinesgarritasuna?

Gehiengo sindikalaren pasibotasunaren aurrean STEE-EILASek bere ordezkari sindikalak bildu zituen *Kristau Eskolak* elkarteak duen egoitzaren aurrean (Donostia, maiatzak 27an) baita AICE patronalaren egoitzan (Bilbo, ekainaren 5ean).

STEE-EILAS-ek uste du hitzarmena kudeatzea, beratu sinatzea bezain garrantzitsua dela.

Diru gehiago pribaturako ez da homologaziorako berma

Patronalari diru gehiago emateak ez du ekartzen ezinbestean homologazioa. Horretaz langileok asko dakigu. Azken urteetan moduluan gehien igo diren kontzeptuak dira, hain zuzen ere, patronalarentzat interesgarrienak zirenak. Normala denez, beren lehentasunak ez baitira langileok ditugunak administrazioarekin hitz egiten dutenean. Datu batzuk emango ditugu:

- Ez 2007. urtean ezta 2008.enean ere ez dago ekiparaziorako partidarik.
- Ratioak ez du bideratzen lanaldi murrizketaren bat gauzatzea.
- Ez irakasleon soldata ordaintzeko igoera oso eskasa da (%2,7 2007an eta %3 2008an).

Halere, urte horietan Administrazioaren konpromisoa lortuta, igoera nabarmenak egon dira ikastetxeetarako garrantzitsuak diren ataletan. Horrela:

- 2007an zuzendaritzarako pizgarriak igoera itzela izan zuen: %98,5% HE, LH eta DBH 1ean; %34,5% DBH 2an eta Batxilergoetan.
- Urte berean Funtzionamendu nahiz Mantenamendurako gastuak izugarri igo ziren: %236 batxilergoan, %242 DBH 2an, % 44,9 HHn, %42 LHn eta DBH 1 zikloan...(2008an gastu horiek %20a ere igo dira)

STEE-EILASen eskutik

Jaso ezazu zeure etxean dohainik eta inolako konpromisorik gabe:

- ✓ *Irakaskuntza Pribatua* aldizkaria
- ✓ *Inforriak* (Informazio puntuala)

Jasoko dituzu posta arruntaz, posta elektronikoaren bidez edota gure web orrira joz:

www.stee-eilas.org

boletínak

EHAA 46 2008eko martxoak 5

DEKRETUA, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena.

EHAA 47 2008eko martxoak 6

DEKRETUA Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duena.

EBAZPENA Lehen eta Bigarren Hezkuntzan 2007-2008 ikasturtean sartu berri diren ikasle etorkinen hizkuntza indartzeko eta kulturartekotasuna sustatzeko programak betetzeko unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxeei diru-laguntzak emateko

EHAA 48 2008eko martxoak 7

AGINDUA, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan 2008-2009 ikasturtean izena emateko eskaerak aurkezteko egutegi komuna eta onarpen-epaia ezartzen dira, baita ikastetxe horietan ikasleak onartzeko jarraibideak ere.

EHAA 57 2008eko martxoak .26

AGINDUA, dotazio ekonomiko edo diru-laguntzetarako deia egiten duena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2008-2009 ikasturtean

EHAA 63 2008eko apirilak .3

EBAZPENA, Hizkuntza Normalkuntzako Proiektuetatik kanpora zein ikastetxe geratzen diren eta beraietan sartuta zein ikastetxek jarraitzen duten eta bakoitzari dagokion ordu esleipena egiten zuen 2007ko

EHAA 64 2008eko apirilak .4

EBAZPENA, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialaren bidez irakasteko baimena ematea eta berari dagokion finantzaketa arautzen duen 2002ko abenduaren 10eko Aginduan ezarritako laguntzen 2008-2009 ikasturteko deialdia egiten da.

EHAA 64 2008eko apirilak 7

AGINDUA, , 2007-2008 ikasturtean Haur Hezkuntzan (2. zikloa), Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian ikastetxe pribatuen itunak ebazten dituen Agindua aldatzeari buruzkoa

EHAA 67 2008eko apirilak .9

AGINDUA, Eskolako Agenda 21 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz Kanpoko Ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, diru-laguntzak ematen zaizkie Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Planeko prestakuntza-ikastaroak gainditu dituzten irakasleei (2007-2008)

EHAA 72 2008eko apirilak .16

AGINDUA, (2. zikloa), Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian ikastetxe pribatuen itunak ebazten dituen Agindua aldatzeari buruzkoa.

EHAA 84 2008eko maiatzak 6 AGINDUA, Irale programaren baitan 2008. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako laguntzetarako deia egiten duena.

EHAA 89 2008eko maiatzak .13

AGINDUA, diru-laguntzetarako deialdia egiten da Leonardo da Vinci eta Erasmus azpiprogramak antolatu eta garatzeko Etengabeko Ikaskuntzako Programaren esparruan.

AGINDUA, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei 2008-2009 ikasturtean zehar egin beharreko Osasun Sustapen eta Heziketaren Berriztapenerako Proiektuak garatzeko deia egiten diena

AGINDUA, ikasgelaz kanpoko ekintzetan (IKE) euskararen erabilera sustatzeko 2008-2009 ikasturterako laguntza-deialdia egiteko dena.

AGINDUA, 2008-2009 ikasturterako Euskal Girotze Egonaldien (EGE) laguntza-deialdia egiteko dena

AGINDUA, ikastetxeetako giroa euskalduntzeko 2008-2009 ikasturtean zehar eskolan ahozko adierazpena indartzeko laguntza-deialdia zabalduz.